

## Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

### Urteko 33 Igandea

2009 Azaroak 15 (B urtea)

Patxi Otamendi

Daniel 12, 1-3

Hebertarrei 10, 11-14. 18

Markos 13, 24-32

- Ikasleei eskainitako mezurik zorrotz eta etsigarriena da gaurkoa. Azken garaietako altxamendu eta nahastea aipatzen ditu. Baliteke Joanen bertsioa dramatikoagoa izatea. Joane bezala, beste bi ebanjelariak (Mateo eta Lukasek) Markosen pasarte honetako ezaugarri batzuk hartu eta beren egokitzapenak egin zituzten.
- Garai hartan idazleek sarritan irudikatzen zuten ohean edo hiltzear zegoen agure beneragarri ala heroi baten hitzez hitzezko azken gogoeta. Adibide zaharrenetarikoa Deutoronomio liburuan dago. Bertokoei utzitako mezu horiei “Testamentu” izenez deitzen zitzairen, nolabait norberaren azken gogoeta azaltzen zutelako.

Pertsonai berezien hil aurreko esanak zuten arrakastaz oharturik, Jesusek gerorako utzitako azken esaldiak zeintzuk izan zitezkeen irudikatzen ahalegindu ziren ebanjelariak. Mateok azken epaiketa aipatzen du; Markosek historiaren azken aldien ezinegona.

Historiaren amaiera sarritan azalpen apokaliptikoz irudikatu izan da. Itun Zaharrean Isaias eta Danielek landu zuten iruditeri mesianikoa.

Markosek aipatutako gertaera harrigarrien erdian (gerrak, gosea, lurrikarak) Jesus ageri da. Botere kaltegarriak desegin eta oreka berria ekarriko duenaren iragarpena emanez.

- Judutarren asaldapenaren ondorio, erromatarrek 66-70 urtetan Jerusalem setiatu eta Tenplua birrindua egin zuten. Erabateko gerra eta eraispena.

Markosen irakurleek ere zapalketa ezaguna zuten, kristau elkarteak mehatxu eta arriskutan zenbiltzalako. Jazarpena zetorkien, eta bide maltzurretatik gainera: batzutan senideek salatzen zituzten, beste batzuk elkarteak utzi eta saldukeria egiten zieten. Jesus “jaun” eta “mais”tzat aitortzeak beste jauntxo asko mikaztea zekarren. Gatazka haien esanahia eta zergatia ulertu beharra zegoen. Hain makurra ote zen egoera?

Markosek hausnartu eta idazteko tartea hartu zuen. Gogoeta taldean biltzen ziren entzule/irakurleei zerbait berria zentzatzeko luzatzen die. Itxaropena dakarkie: kalapitaren erdian Norbait dago ahalmen berriz. Hau da: ezingo dugu alboratu -ezta ahaztu- gizartean eta elkartean gertatzen ari dena. Baina hori ez da guztia, besterik ere badago.

- Historiaren gainbeherazko eszena horretan erne jarduteko eskatzen digu Jesusek. Gertaeren joera, neurria eta funtsa ulertzen saiatzea. Bera gertakizunen muinean eta erdian dator. Ez soilik azken garaietan, baita historiako une bakoitzean.

Ebanjelioek sarritan ohartzen digute alde aurretik ez dakigula gure Jauna noiz eta nola hurreratzen zaigun. Itxaropenaz jardun behar dugula, eta ez dela guk uste edo kalkulatu bezala gertatuko. Dena galduta dagoela argi samar dagoenean, ustekabeko garaipena sor daitekeela: Jainkoaren erreinuak egoera hankaz gora jarritz.

Neronen boterea etorri eta joan zen. Jaunaren promesak, ordea, hor diraute bizi-bizi.